

# BERSO SORTA.



(ON RICARDO BECERRO BENGOA JAUNA-RI)



## A L A !

Alá nola egazti dijoana  
 Dagon gau bat pasatzen  
 Aritz adarrean,  
 Alá nere anima ere jegan!...  
 Dago gaur Gernikako  
 Arbola maitean!



## A I !

Euskal-errian,  
 Euskaldunakiñ,  
 Euskaraz mintzatzen,  
 ¡Zeñen gozoro  
 Dijoakitan  
 Bizia pasatzen!  
 Baña ¡ai!... beti  
 Mendiyaz gora  
 Anima egatzen!



**L O !**

Izanik  
Seask  
Besota  
Kolko,  
Amaren  
Kantaz  
¡O zenbat  
Aurcho  
Arkitzen  
Diran  
Orain  
Gozo  
Lo!  
Gero  
.....  
¡O zenbat  
Malko!

ANTONIO ARZÁC.



# BERSO ŠORTA.



(ON ANTONIO PEÑA ETA GOÑI JAUNA-RI)

## KABI UTSA.

Atzo arkitu nuen;  
 Ez arbolean  
 Baizik eche batean,  
 Nongo alabák  
 Gorderik daukan ondo  
 Amar urtean.  
 Ikusirikan sortzen  
 Lore tartean  
 Naiera artu zion,  
 Ta choriñóak  
 Betiko ega zuten  
 Egun berean  
 Jaso ta gorde zuen!

. . . . .

Ez esan utsa dala:  
 Ez daki iñork  
 Choriák nora ziran,  
 Baña geroztik  
 ¡O zenbat gauza nigan  
 Ai! pasa diran!...  
 Ta ¡nola kabi orrek  
 Nere begi aurrean  
 Jartzen dizkiran!



**ARITZA TA NI.**

Euskal-aritztiyetan  
Asnase artzian,  
Ez dakit zér sentitzen  
Dedan biotzian.  
Gaur, bigar edo etzi,  
Illtzen naizanian,  
Maite nauenik bada  
Gelditzen lurrian,  
¡Jar dezala aritz bat  
An!... nere obian!

**AI!**

Nere biotzak  
Senti duena  
Eziñ kanta det;  
Benetan!  
. . . . .  
Ai!... ezagun da  
Jaio nintzala  
Bersolaria  
Chanchetan!

ANTONIO ARZÁC.



## BERSO ŠORTA.



(NERE CHIKITAKO ADISKIDEA ALFREDO LAFFITTE-KOARI)

### ¡LUR MAITEA!

Ala nola enara  
 Lengo kabira  
 Nator gaur ni ere  
 Jaio-tokira  
 ¡Nork daki denborak  
 Emanik jira  
 Emen ote naizan  
 Joango obira!

. . . . .

¡O aingeruchóak  
 Zuen erdira  
 Eraman nazute  
 Zeru-glorira  
 Utzi gabe joaten  
 Erdal-errira!  
 Euskaldun joan nai det  
 Nik lur-azpira!

\* \* \*

### BERSO-EGILLEA.

Zu ¿zéin da gizon ori  
 Orren arlotea?  
 —Choro gaiso bat, utsa,  
 ¡Berso-egillea!  
 Ez dakiena zér dan  
 Aberastutzea,  
 Eta mundu onetan  
 Ondo bizitzea;  
 Choriak bezela du  
 Isilltzen gosea.—

¡O zu, gizon aberats,  
 Jakintsun ernea!  
 Ezpadezu mudatzen  
 Munduko legea  
 T' egiñ biotzik gabe  
 Aurra jaiotzea,  
 Gertatuko da gero  
 Aur ark maitetzea,

. . . . .

¡Tortolloa bezela  
 Urrungaz illtzea!

\* \* \*

¡OSTUA ERORTZEN...!

¡Dijua!... ara bruma ta lañua,  
 Abo-zabalka asi da kanpua,  
 Datorchio lua  
 Zeña dan... ¡negua!

\* \* \*

¿NON DA?

Baserricho artan  
 Ollua karakaz  
 Zegon,  
 Egin du arrautza  
 Billa zak, ene, non  
 Dagon,  
 —Ez dago kabiyan,  
 Ez met'onduan, ez  
 Iñon—  
 Ta... ¡aur orren gisa  
 Dabiltza gaur zenbait  
 Gizon!

ANTONIO ARZÁC.

